
FUNDAÇÃO CALOUSTE GULBENKIAN
AVENTURA SOCIAL
SOCIEDADE PORTUGUESA DE PSICOLOGIA DA SAÚDE
FCT
PORTUGAL
Reunião *Dream Teens*
01 Novembro de 2015 | Lisboa, Portugal
DREAM TEENS
DÁ VOZ ÀS TUAS IDEIAS
*
DREAMTEENS.AVENTURASOCIAL.COM

**2015ko azaroaren 1ko egunean egindako *Dream Teens* proiektuko bilera nazionalan aukera on bat izan zen proiektu honetako taldeak egindako lan garrantzitsua ezagutzeko. Margarida Gaspar de Matos katedradun irakasleak (*Faculdade de Motricidade Humana, Universidade de Lisboa*) lan hau burutu den *Aventura Social* Ikerketako taldea zuzen du *Fundação Calouste Gulbenkian* y la *Sociedade Portuguesa de Psicologia da Saúde* lankidetzarekin, zein Portugaleko toki ezberdinetako 100dik gorako neska-mutil nerabeen parte-hartzearekin.**





**Proiektu honen helburua da nerabeen ideiei ahotsa ematea,kontuan hartuz gizarteko aktibo garrantzitsuak bezala. Izan ere, laguntzen ari dira gizarte hobe bat sortzen, ikusi ahal izan genuen bezela talde bakoitzak egindako lana aurkezpenaren bidez. Sei talde horiek nerabeek antolatu eta nerabezaroko buruzko gai interesgarriei heltzen die: baliabide pertsonalak eta ongizatea, osasun mentala eta bizi-kalitatea; kapital soziala, indarkeria, pertsonarteko harremanak, lagunak, familia; amodio eta sexualitatea, guraso eta haurdunaldia; menpekotasun harremanak, kontsumoak, istripuak; bizimodua eta osasuna, aisia, jarduera fisikoa eta gorputz irudia; herritartasuna, erantzukizuna, gizartearen parte-hartzea, etorkizuna, eskola, gizartea.**

Hain zuzen ere, inplikatuta egon diren nerabe talde ezberdinak egindako lana ez da bakarrik izan zabaltzea beraien ikastetxetan, baita ere ikertu eta aipatutako arlo ezberdinetako gai garrantzitsuei buruzko argibideak ematea (talde batzuk ere lagundu dute "*Adolescentes: navegação segura por águas deconhecidas*" liburuaren atalburu batzuen idazlanean Margarida Gaspar de Matos-ek koordinatuta) eta hasiera emanez ekintza eta esku-hartze estrategiei gizarte konpromisu maila altuarekin (nola bildu dirua lasterketa solidarioen bitartez bullyingari buruz nola saihestu eta esku hartzen duten elkarteei laguntzeko, beraien ilea emanez minbizia duten pertsonentzako elkarteek ileordea landu dezaten edo elikagai bilketako programetan parte hartu etxerik gabeko pertsonen artean banatzen dituzten erakundei emateko).







**Zalantzarik gabe, nerabe hauek garatzen duten ikerlan eta esku-hartze prozesuetan eta erabakiak eta hausnarketa prozesuak hartzen hasten diren tokian, bilera horretan egoteko aukera eduki zuten heldu guztiei harrituta utzi zieten. Horregatik, konbentzituta gaude *Dream Teens* proiektua baita ere aktibo bat da nerabe hauen garapenerako, beraiei animatuz konpetentzi eta trebetasun garrantzitsuak eskuratzea pertsona eta hiritar hobeak izan daitezen.**

**Hori dela eta, uste dugu proiektu hau garrantzitsua da transferitua izatea eta martxan jartzea beste herrialdetan. Horretarako, *Dream Teens* proiektuko kideak erreferentzia-ereduak izango dira.**

**Espainiako HBSC taldea**

**Xabier Erquicia Elustondo-rengandik euskerara itzulia**






Reunião *Dream Teens*
01 Novembro de 2015 | Lisboa, Portugal
VOZ
TUAS